



2018ko ekaina

AURKEZPENA

Zikloteka bizikleta bidezko mugikortasunean espezializatutako dokumentazio-zentroa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Cristina Enea Fundazioak sortutakoa. 2016. urtean ireki zituen ateak Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean, Donostian.

Ziklotekaren dokumentu-funtsa Aldundia, udal, unibertsitate, kolektibo eta norbanakoen arteko lankidetzaz eta ekarpenen emaitza da. Bertako dokumentazioa kontsultatzeko espazio fisikoa eskaintzeaz gain, dokumentazio guzti hori bildu eta kudeatzeko tresna informatiko bat ere sortu da; dokumentu guztiak Internet bidez kontsulta daitezke horretarako propio sortutako eta bilatzailea duen webgune batean, eta digitalizatutako dokumentazioa online deskargatzeko aukera ere ematen du.

Buletin honetan interesekoak izan daitezkeen argitalpenak eta bizikleta bidezko mugikortasunarekin lotutako albisteak bilduko ditugu, baina horrez gain, zuen laguntasuna jasotzea ere nahiko genuke. Bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko dokumentuak, bideoak, kartelak... badituzue edo haien berri baldin baduzue, guri helaraztea eskertuko genizueke.

Telefonoz deitzen badiguzue (943 453 526) edo mezu elektroniko bat bidaltzen baduzue (zikloteka@donostia.eus) gustu handiz erantzungo dizuegu, eta esku artean duzuen informazioa edo dokumentazioa nola jaso eta Ziklotekako dokumentu-funtsean nola txertatu adostuko dugu.

BIZIKLETAREN ALDEKO HIRIEN SAREA ETA ZIKLOTEKA

Bizikletaren aldeko Hirien Sareak eta Ziklotekak aspalditik dihardute elkarrekin lanean, Ziklotekako dokumentu-funtsa Sareko kide diren tokiko eta probintzia mailako erakundeetako informazio eta ezagutzaz hornitzeko modurik onena aurkitzeko helburuarekin; halaber, informazio guzti horretara, Ziklotekaren webgunearen bitartez, modu arin eta sistematizatuan iristeko aukera ere eskaini nahi dute. Horri buruz hitz egin zuten, joan den maiatzaren 17an, Valentzian, Sareak egin zuen bileran. Irailean egingo duten hurrengo bileran akordioaren bat ixtea dago aurreikusita.



DOKUMENTUEN AUKERAKETA

Gaur egun, 3.100 dokumentutik gora bilduta ditugu gure datu-basean. Jarraian duzue bildutako nobedade nagusien erreferentzia labur bat eta dokumentuen aukeraketa:



Pedaleando el mundo



Pilar Tejera.
Casiopea argitaletxea. 2013.

Emakume bizikleta-bidaiarien abenturak. 30 emakume arrunten abenturak biltzen ditu. Egun batean dena albo batera utzi eta abentura bat bizitzea erabakitzen dute. Bizikletak prestatu eta gainean muntatu; normalean ahanzturaren kutxan gordetzen ditugun ametsak bildu eta abenturara irtean dira.



Bizikleta-mugikortasuna udal ordenantzetan jasotzeko gomendio teknikoak



Esther Anaya.
Gipuzkoako Foru Aldundia. 2018.

Txosten honek gomendioak ematen dizkie udalerriei mugikortasuna arautzen laguntzeko, oinezkoen eta ziklisten premietan arreta jarri.



La importancia de la Bicicleta



Ricardo Marqués Sillero.
Valentziako Unibertsitatea. 2018.

Bizikletari paper nagusia emateko beharra defendatzen du liburuak, garraio-modu gisa eta gainontzeko moduen elementu integratzaile eta bateratzaile gisa, hiri jasangarriagoak lortze aldera, automobilaren nagusitasunetik urrun.
ConBicik hautatua.



La revolución silenciosa: la bicicleta como motor de cambio en el siglo XXI



Dani Cabezas.
Kataluniako Universitat Oberta. 2016.

Asmatu eta handik bi mendera, Karl Von Drais alemanaren eskutik, bizikletak berriz eskatzen du bere lekua kaleetan. Ez hiri handietako trafiko itogarriaren soluzio moduan soilik, baizik eta klima-aldaketaren kontrako borrokarako tresna gisa.



Bizikleta eta tokiko gobernua. Bizikleta bidezko mugikortasun politikaren gida Gipuzkoako, Nafarroako eta Pirinio Atlantikoetako udalerrietzat



Alfonso Sanz.
Gipuzkoako Foru Aldundia. 2018.

Edizio hirueledunean argitaratzen den dokumentua da eta udal-politikari eta teknikariak bizikleta-mugikortasuna bultzatzeko premieren inguruan sentsibilizatu nahi ditu, ekintza-lerroak eskainiz.



Ensayo sobre las dos ruedas



Rui Valdivia.
El Arte de las Cosas - Biblioteca de las Indias Electrónicas. 2017.

Liburu hau bizikletatik harago doa, eta bizikletaren gainean ikusten den munduari buruz hitz egiten digu. Bizikleta-zale orok, aldizkako, ohikoa, kirolari profesionala edo fanatikoa izan, gozatuko du liburuarekin edo, moduren batean, liburuaren lerroetan islatuta ikusiko du bere burua.



CICLOSFERA#25



Ciclosferaren udako alea eskuragarri dago Ziklotekan eta online ere irakur daiteke. Aktibismoa, ziklogistika, ohiko bizikleten eta bizikleta elektrikoen erakusleioa... Gai-sorta zabala: haserre dagoen auto-gidari batek hirietako txirringulariei bidalitako gutuna, Chiapasen bi zikloturisten heriotza, pedalei eragiteko zoratzen dagoen telebista-aurkezle bat edo, trizikloen bidez, minbizia duten haurrei barre egiten laguntzen dien ekimena.



BIKESHARING

Bike sharing. Estaziorik gabeko "bikesharing" sistemak hirietan ezartzeko irizpideak eta gomendioak



Bizikletaren aldeko Hirien Sarea. 2018

Sareak partekatutako bizikleta-sistema hori ezartzeko irizpideak eta gomendioak biltzen dituen gida egin du. Garraio-aukera horrek malgutasun handiagoa eskaintzen die erabiltzaileei eta bizikletaren erabilera areagotzen du, baina,aldi berean, ondorio negatiboak ere eragin ditu era intentsiboan eta araurik gabe ezarri izan den hiri-inguruetan.



XIV. Kongresu Iberikoa Bizikleta eta Hiria. Bost ardatz, berrogeita hamar komunikazio, argitalpen bat



VV.AA. Koordinatzailea: Laura Vergara. Pedalea Kolektiboa Elkarteak argitaratua. 2017.

Argitalpen elektroniko honek "Bizikleta eta Hiria" XIV. Kongresu Iberikotik irtendako erronka eta proposamen berriak biltzen ditu; "Bizikleta eta Hiria" ConBicic eta Portugalgo Zikloturisten Federazioak eta Bizikletaren Erabiltzaileak (FPCUB) elkarrekin egindako ekimena da eta Kongresua Pedalea Elkarteak antolatua zuen Zaragozan, apirilaren 27tik 29ra. *ConBicic hautatua.*

ALBISTEAK

Donostiako Udalak bat egin du Bizikletaren aldeko Hirien Sarearekin



Sarea Espainiako 550 udalerririk ordezkatzen dituzten tokiko zein probintzia mailako 100 erakunde osatuta dago, eta bizikletaren erabilera bultzatu eta sustatzea du helburu, garraibide jasangarri eta osasuntsu gisa.


Bizikletaren Munduko Eguna

NBE-k adierazi du hemendik aurrera ekainaren 3an ospatuko dela Bizikletaren Munduko Eguna, eta Estatu Kideei bizikleta bidezko mugikortasunaren aldeko neurriak har ditzatela eskatu die.



BIDEOAK

Ziklotekak, bere artxiboetan, bizikleta bidezko mugikortasunarekin lotutako bideoak ere baditu. Hirugarren buletin honetan "Kalapie: 25 urte pedalei eragiten hiria aldatzeko (1989-2014)" izeneko dokumentala jaso dugu; bideoak Kalapie hiriko txirringularien elkartearen istorioa kontatzen du; elkartearen papera oso garrantzitsua izan da, azkeneko 28 urteetan Donostian izan diren aldaketetan.



AGENDA

Europako Mugikortasun Astea

Irailaren 16tik 22ra ospatuko da Europako Mugikortasun Astea *Mix and Move!* (Nahastu eta mugitu zaitez!) goiburuarekin. Herritarrak, beren egunerokotasunean, garraio bide aktiboak, publikoak eta jasagarriak erabili eta konbinatzera animatu nahi ditu ekimen honek, "multimodalitatearen" aukeren gainean arreta jarritz: garraio bideen konbinazioa bidaia berean edo bidaia ezberdinetan.

Bizikleta-espaloien inguruko hausnarketa eta eztabaidarako jardunaldia

Ekainaren 26an Madrilan, Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioaren eskutik.

CONAMA, Ingurumen Kongresu Nazionala


2018ko azaroaren 26tik 29ra egingo da Madrilan 14. Ingurumen Kongresu Nazionala.

Mugikortasuna:

- Lanerako mugikortasuna
- Hiri-Mugikortasun Jasagarri Plana eta udal-Ordenantzak
- Klima-aldaketa eta trantsizio energetikoa garraioan
- Mugikortasuna zerbitzu bezala
- Logistika.

MUGIKORTASUNAREN EUROPAR ASTEA

IRAILAK 16-22



Zikloteka. Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazio Zentroa

Mandasko Dukearen Pasealekua, 66. 20012 Donostia

943 45 35 26 | zikloteka@donostia.eus | cristinaenea.eus/zikloteka

Orduetgia

Astelehenetik larunbatera: 09:30 - 13:30 / 15:00 - 20:00 (neguan 19:00ak arte)

Igande eta jai-egunak: 10:00 - 13:30.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Mugikortasuneko eta Lurralde
Antolaketako Departamentua



ORAIN
GIPUZKOA